

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Kiroldegiko langilea langile lan kontratudun izendatzea probaldian, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan, hautaketa prozesuak amaitu ondoren

Dulantzin, 2025eko uztailaren 28an, eguerdiko ordu batean, Joseba Koldo Garitagoitia Odria alkatea bulego ofizialean agertu da, eta bertan da, halaber, Vanessa Domínguez Casal idazkaria.

Udalbatzaren 2022ko maiatzaren 4ko erabaki baten bidez, oinarriak eta aipatutako deialdia onetsi ziren.

2022ko abenduaren 16ko ALHAOn (144. zk.) iragarkia argitaratu zen (hutsen zuzenketa: ALHAO, 32. zenbakia, 2023ko martxoaren 17koa), eta 2023ko apirilaren 17an deialdiaren laburpen bat BOEn (91 zenbakia), zeinaren bidez hautaketa oinarriak eta deialdia argitaratu baitziren egiturazko plaza hutsak merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan.

Arabako Foru Aldundiaren esku utzi zen abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa esleipena.

2023ko apirilaren 17ko BOEn (91 zenbakia) eskaerak aurkezteko epeari hasiera ematen zion iragarkia argitaratu zen.

2023ko azaroaren 27ko dekretu batek izangaien behin betiko zerrenda eta behin-behineko puntuazioa onetsi zituen.

Epaimahaiak behin betiko puntuazioei buruzko erabakia hartu zuen eta 2024ko urriaren 3an izendapen proposamena egin zuen.

2025eko ekainaren 3ko Dekretuak kiroldegiko langile lanpostua esleitzea proposatzen zuen.

Proposatutako pertsonak dokumentazioa bidali zuen deialdiaren oinarrien 13. artikuluan jasotakoaren arabera.

Horiek horrela, aipatutako agintariak ebazpen hau eman du:

Lehenengoa.– Honako pertsona hau dagoen langile lan kontratudun izendatzea probaldian eta Dulantziko Udalaren lanpostu honi atxikitzea:

PLAZA	TALDEA ETA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA ETA KLASEA	PROBALDIAN IZENDATUTAKO PERTSONA
Udal eraikinetako arduraduna (kiroldegiko behargina) – 03.003	LT	Administrazio orokorreko eskala, menpekoen azpieskala	Borja Triviño Sanz

Izendapen horrek dekretu honen dataren hurrengo egun baliiodunetik (2025eko uztailaren 29a) aurrera izango ditu administrazio ondorioak.

Bigarrena.– Probaldian izendatutako langile lan kontratudunak hilabeteko epea izango du lanpostuan lanean hasteko, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena.– Lanpostuaren atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte. Taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokideak diren ordainsariak jasotzea dagokio, ez bada Praktiketako Funtzionarioen Ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan jasotako egoeretako bat gertatzen dela.

Probaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, langile lan kontratudun finko izendatuko da, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozein tokitan argitaratuko da.

Laugarrena.– Juan José Alburquerque Gajate esleitzen zaio tutore.

Bosgarrena.– Interesdunari jakinaraztea.

Seigarrena.– Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta erakunde honen iragarki taulan eta web orrian ere (<https://www.alegria-dulantzi.eus/eu/index.php>).

Zazpigarrena.– Egiten den hurrengo bilkuran dekretu honen berri ematea Udalbatzari, eta Lehendakartzaren dekretuen eta ebazpenen liburuan transkribatzeko agintzea.

Alegria-Dulantzi, 2025eko uztailaren 28a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA